



eman ta zabal zazu


Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2022-2023 IKASTURTEKO MEMORIA BIZKAIKO CAMPUSA

www.ehu.eus/bizkaia

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2022/2023 IKASTURTEKO MEMORIA

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA

BIZKAIKO CAMPUSA

(Campuseko Batzarrak 2023-7-XXan onartua)

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

BIZKAIKO CAMPUSA

2022/2023 IKASTURTEKO MEMORIA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1.PRESTAKUNTZA	9
2. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA	15
3. KULTURA ETA GIZARTEA	20
4. PERTSONAK	29
5. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK	32

AURKEZPENA

2022-2023 ikasturtearen jarduera memoria honek biltzen ditu Bizkaiko Campusaren emaitza eta jarduera nagusiak. Iaz bezala, txosten honen oinarri modura erabili dugu UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren egitura. Plan horrek bost ardatz nagusi ditu; hain zuzen, gure jardueren memorian erabili ditugunak: **Prestakuntza; Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentzia; Kultura eta Gizartea; Pertsonak; Gobernantza eta Baliabideak**. Horrela, UPV/EHUren jardueren memoriaren eskema bera erabilia, modu askoz intuitiboagoan ikus daiteke Bizkaiko Campusak gure erakunde osoari eginiko ekarpena.

Dokumentu hau planteatu dugu ikasturte honen Jardueren Planarekiko elkarrizketa modura, halako moldez, non *erantzun* egiten zaien planean aurreikusitako jardueri, nahiz eta hasieran aurreikusita ez zeuden eta gerora egin diren jarduerak ere sartu diren.

Ikasturte honen amaieran onespena eman zaio **Euskal Unibertsitate Sistemaren 2023-2026 Planari**. Uste dut albiste ona dela eta pozik egon gaitzkeela, neurri batean behintzat. Plan horren barruan, Inbertsioen Urte Anitzeko Planak aintzat hartzen du Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berriaren finantzaketa. Programa Kontratu barruko ekarpen berriekin batera, nabarmentzekoa da **Azpiegiturak Hobetzeko Urte Anitzeko Plan Berezia**, 13,5 milioi eurotik gorako ekarpen gehigarri bat aurreikusten duena datozen lau urteetan, Bizkaiko Campuseko azpiegiturak hobetzeko eta eraberritzeko, lehentasuna emanez beti jasangarritasuna, energia aurrezpena edo irisgarritasuna bezalako gaiak.

Eta, azpiegiturak aitatu ditugunez, aipa ditzagun orain 2022-2023 ikasturtean alor honetan izan ditugun mugari nagusiak. Lehenik eta behin, **Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea**. Hainbat gorabehera eta oztopo gainditu ondoren -denok dugu horien berri-, bururaino eraman da ikasturte honetan obraren lizitazioa, eta Ferrovialek eta EBAk eratutako ABEEri adjudikatu zaio lana. Obrak hastear daude eta uztaile amaieran egingo da eraikinaren lehen harria jartzeko ekitaldia. Lanek 36 hilabete iraungo dute, obra hasten denetik kontatzen hasita.

Nazioarteko egoera geopolitikoaren eta egoera ekonomikoaren ondorioak nozitu dituen beste proiektu bat izan da Bilboko Ingeniaritza Eskolaren Portugaleteko eraikinean egin beharreko esku-hartzea, **Itsasgune** izeneko egitasmoaren barruan. Huts egindako hainbat lizitazioen ondoren, martxan jarri dira ekainaren hasieran eraikina egokitzeko lanak. 6 hilabetez luzatuko diren lanen helburua da Portugaleteko eraikina azpiegitura jasangarriagoa eta lagunkoiagoa bihurtzea, egitasmo berriak jartzeko martxan, ikerketaren alorrean nahiz transferentziarenean.

Gainera, ohiko lanak egin dira ere hainbat ikastegitan, dokumentu honetan xehetasunez jaso direnak. Edonola ere, nabarmendu nahi nituzke Leioako Areto Nagusian eginiko obrak. Inguratzaile termikoa eta aireztapen sistema hobetuta, ekainaz geroztik erabilgarri dugu berriz espazio ikoniko hau, horren garrantzitsua ekitaldi jendetsuak egiteko. Gure asmoa da kultur ekitaldi handi bat egitea udazkenean, aretoa berrinauguratzeko.

Azpiegitura horiez gain, nabarmendu nahi dut lanean jarraitzen dugula aliantza berrien bila, beste egitasmo batzuk garatzeko; hala nola Zorrotzaurre, Sarriko edo Olabeagakoak.

Azpimarratu nahi dut ere lantalde bat jarri dugula martxan **Bilbo Unibertsitate Hiria Estrategiari** begira, helburua izanik egitasmo horretan aktiboki parte hartzea eta bide bakar bat ezartzea Udalarekin elkarlanean eta era koordinatuan aritzeko.

Dokumentu honek sistematizatuta biltzen ditu campusean eginiko jarduerak eta, horregatik, informazioa ez errepikatzeko edo ez bikoizteko, aurkezpen honetan azpimarratuko ditut nire ustez aipagarrienak diren jarduerak edo gaiak, haien berritasunagatik edo campusaren egunerokoan duten garrantziagatik.

Hasteko, nabarmendu nahi nuke UPV/EHUrentzat estrategikoa den eta campusean bere zuzendaritza duen alor bat: **ekintzailtza eta transferentzia**. Hala, Zitek campuseko enpresen mintegiak jarraitzen du izaten ekintzailtzaren arloan martxan jarritako egitasmo nagusia, haren hiru egoitzen bitartez: Bilboko Ingeniaritza Eskola (Portugalete eta Bilbo), Errektoretzaren eraikina (Leioa) eta BAT dorrea (Bilbo). Une honetan, 22 start-up ditugu Ziteken, eta 4 enpresa berri sortu dira 2022-2023 ikasturtean.

Alor honetan, ekintzailtzari loturiko prestakuntza eta dibulgazio ikastaroak ere egiten dira, ikasleentzat eta ikertaldeenentzat, ekintzailtza bultzatzeko unibertsitateko kideen artean. Eginkizun berarekin, hainbat sari banatu dira: hala nola enpresa ideiak sustatzeko Think Big saria edo Zitekeko start-up onenari emandako Abiatu saria.

Transferentziaren arloan eta beste erakunde batzuei dagokienez, nabarmentzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Talentu Estrategian izan dugun parte hartzea, beste erakunde eta agente sozioekonomiko batzuekin batera.

Aipatzekoa da ere **Berrikuntza Irekia** alorrean abian jarritako **Unibertsitate-Enpresa Gela**, hiru campusetan, enpresaburuen hiru erakundeekin elkarlanean (CEBEK, gure kasuan). Helburua da enpresa ertain eta txikiak Unibertsitate-Enpresa Gelak eskaintzen dituen aukerez baliatzea. Une honetan, martxan jarri eta hedatzeko fasean gaude, eta uste dugu datorren ikasturtean sortuko direla lehenengo elkarlanak unibertsitatearen eta enpresen artean.

Eta **Unibertsitate-Enpresa Gelez** mintzo garenez, aipatzekoa da egin dugun lan handia martxan jartzeko Gela gehiago, batez ere baliabide honek pisu txikiagoa zuen ikastegietan. Hori horrela, Unibertsitate-Enpresa Gela bat sortu dugu elkarlanean Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin (REAS), eta harremanak hasi ditugu gela gehiago sortzeko hainbat erakunderekin: hala nola Portlab, Uniport, Guggenheim Museoa, Arte Ederren Museoa eta Athletic Club.

Gainera, harrotasun bereziz betetzen nau lehenengo **Unibertsitate-Gizarte Gela** martxan jarri izanak; zehazki, Bilboko Hezkuntza Fakultateak eta Euskadiko Down Sindromearen Fundazioak elkarlanean. Hezkuntza berrikuntzan eta inklusioan oinarritutako proiektu bat da.

Bigarrenik, nabarmendu nahi ditut **ikasleekin** eginiko jarduerak, bai unibertsitate ikasleak bai unibertsitate aurrekoak. Alde horretatik, unibertsitate ikasleei dagokienez, UPV/EHUko eta Bizkaiko Campuseko Ikasleen Kontseiluetako ordezkari berriak hautatu ondoren, estutu egin dira campusaren eta **Ikasleen Kontseiluaren** arteko harremanak, eta hiru hilean behingo bilerak ezarri dira, jardueren jarraipena egiteko.

Bestetik, **Ongi Etorri Astea** antolatu nahi dugu, ez bakarrik ikasle atzeritarrentzat edo Estatutik etorritakoentzat, ikasleen elkarteetan eta ikasle guztien partaidetza indartzeko.

Ikasturte honetan, **Lau Haizeetara** programari berrekin diogu, zeinaren bidez informazio hitzaldiak ematen zaizkien Bilbo Handitik urrutien dauden eskualdeetako unibertsitate aurreko ikasleei. Zehazki, 5 hitzaldi eman dira, Durangon (2), Markinan, Gernikan eta Balmasedan, eta 837 ikasle bertaratu dira guztira.

Jardueren Planean, aurreikusita genuen martxan jartzea **STEAM udalekuak**. Proiektu bat idatzi da eta hainbat erakunderi aurkeztu zaie, lagundu dezaten. Aurten ezin izan ditugu udalekuak antolatu, baina aukera handiak daude 2023-2024 ikasturtean egiteko, Bilboko Udalaren laguntzari esker.

Hirugarrenik, nabarmendu nahi dut **kulturaren eta euskararen** esparruan egiten ari garen lana eta ikasleak izaten ari diren parte hartzea. Ez ditut hemen aipatuko eginiko jarduera guztiak, dokumentuan bildu direlako, baina gustatuko litzaidake bereziki aitatzea martxan jarri dugun **Grabieli Aresti Katedra**, proiektu zinez iradokitzaile eta erakargarria; **Sormen Ola** programa, Loraldiarekin batera; edo Film luzeen Lehiaketa edota **Ekkofest** musika jaialdia, Unikoak programaren barruan.

Laugarrenik, **kirolaren** alorrean, hainbat txapelketa eta kirolaren astea antolatu ditugu. Aipatzekoa da ere gure zeregina Frantziako Tourrari lotutako ekitaldietan; hala nola Science & Cycling Nazioarteko Batzarraren ko-antolakuntza edo hainbat telebista programaren errealizazioa, Bizkaia Aretotik. Azkenik, saskibaloiko saski bat jarri dugu Leioako eremuan, jarduera fisikoa eta aisialdikoa sustatzeko.

Bosgarren alorrean, **Ostatua**, lanean jarraitu dugu Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiko ikasleekin, elkartasuna eta gizarte konpromisoa indartze aldera. Gainera, aurrera jarraitu dugu Etxebizitza Solidarioak egitasmoan; zehazki, Bilbon, Santurtzin eta Ermuan. Azken bi udalerrri horietan, lehen aldiz jarri da martxan proiektua ikasturte honetan, eta balorazioa positiboa da. Beraz, datorren ikasturteari begira, bide beretik jarraituko dugu, dagozkion hobekuntzak eta egokitzapenak eginda. Aipatzekoak dira ere Peñascal Fundazioarekin eta Agintzari Elkartearekin eginiko lankidetzak akordioak, bultzada emateko eta ezagutarazteko gizarte erakunde horiek lagundu gabeko gazte atzeritarrentzat dituzten alojamendu programak. Bestetik, datorren ikasturtean egingo den jarduera bat bada ere, nabarmenezkoa da 2022-2023 ikasturtean erabaki dela datorren urtean Euskadin egitea Ikastetxe Nagusien Espainiako Batzarra, eta antolatzaile lanetan arituko gara Deusto eta Mondragon Unibertsitateekin batera.

Ikasturte honetan eginikoaren laburpen honetan ikus daitekeenez, guretzat oso garrantzitsuak dira ekintzailatzaren arloa eta eragile sozioekonomikoekiko harremanak. Dena dela, saiatu gara ere gizarte ikuspegia lantzen eta hirugarren sektoreko gizarte erakunde eta elkarteekin elkarlanean aritzen. Hori horrela, uste dut **zeharkako ardatz** bat dagoela aurretik aipatutako puntu guztien azpian, eta zera da: **gizarte inpaktua** eta **lurraldearekiko konpromisoa**. Elkarlanean aritu gara lehenengo Unibertsitate-Gizarte Gelaren sorkuntzan eta bultzada eman diegu gizarte eta kultura erakundeekiko

harremanei, gure ikasleen konpromiso soziala azpimarratuta. Eta, nola ez, ez ditut ahaztu nahi Esperientzia Gelak eta unibertsitateak duen zeregin aktiboa gizarte erronka handiei eta zahartze aktiboaren dinamizazioari dagokienez.

Gorka Moreno

Bizkaiko Campuseko Errektoreordea

PRESTAKUNTZA

1. helburua

Oreka bat sortzea graduen eskaintzaren (egonkorra eta tokikoa, nagusiki) eta graduondokoen eskaintzaren (dinamikoagoa eta nazioartekoagoa) artean.

Ekintzak

- 1.1. UPV/EHUK eskaintako graduako eta graduondoko tituluen mapa tokiko eta nazioarteko gizarte erronkekin kontrastatzea, eboluzio demografikoa, ikasleen profila eta ingurune sozioekonomikoaren eskakizunak barne hartuta.
- 1.2. Graduako eta graduondoko eskaintza egokitzea, prestakuntza katalogo eguneratu, koherente, erakargarri eta jasangarri bat edukitzeko, eskura ditugun baliabideak optimizatuz eta ENLIGHT proiektuaren sinergiak aprobetxatuz.
- 1.3. Prestakuntza ibilbide osatuak eta eskaerara egokitutakoak finkatzea, kontuan hartuta, besteak beste: aldiberekotasunak, pasabideak, gradu bikoitzak, eta graduako eta graduondoko eskaintza konbinagarriak (osagarriak), baita unibertsitatekoak eta goi mailako hezkuntzakoak ere (Adibidez, Lanbide Heziketa).
- 1.4. Prestakuntza eskaintzaren komunikazioa areagotzea balizko ikasleen eta, oro har, gizartearen artean, inplikaturako eragileen arteko estrategia koordinatua definituta (eskaintza, orientazioa eta komunikazioa).

(1.4 ekintza) Graduako eta graduondoko ikasleak erakartzeko estrategia hobetzeko, UPV/EHU ikasteak duen balio bereizgarria nabarmenduta, eta unibertsitate aurreko ikasleen orientazioa indartzeko, "UPV/EHU Lau haizeetara" egitasmoari berrekingo zaio, helburutzat duena unibertsitatearen printzipioak eta balioak gizarteratzea Bizkaiko eskualdeetan.

"Lau haizeetara" jardueran bost hitzaldi egin dira 2023an urtarrilean Durangon (2), Gernikan, Markinan eta Balmasedan, eta guztira 837 ikasle bertaratu dira. Ekitaldi horiek oso eskertu dituzte ikastegiekin. Campuseko taldeak ekimen hau oso modu positiboan baloratzen du eta egiten jarraitu behar dela uste du.

Bestalde, udako kanpamenduen programa bat diseinatu da STEAM bokazioak sortzeko DBH eta Batxilergoko ikasleengan; zenbait erakunderi aurkeztu zaie, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bilboko Udalari. Orain erantzunaren zain gaude, zehaztu eta abian jarri ahal izateko, baina 2024ko udarako aurreikusita dago.

Era berean, Arboretumaren potentzial didaktikoa aprobetxatzeko eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen ibilaldiak sustatzeko, fitxa didaktikoak egiteko proiektu bat hasi da, irakasleek ibilaldi horietan erabil ditzaten. Era berean, ikastetxeentzako ikustaldi gidatuak egiten jarraitu da, bai eta Leioako Udalak sustatutako aisiako programa ere.

Landa-Praktiken deialdiari dagokionez, bi egin dira:

LP-II-2022: 100 eskaera. Egindakoak 79.

LP-I-2023: 105 eskaera (hauetako 3 ezezkoak). Egindakoak 95.

2. helburua

Prestakuntza dualeko eskaintza zabal bat bultzatzea Gradu, Master eta Doktorego ikasketetan.

Campusak zenbait bilera egin ditu EHUgunerekin eta enpresekin, esaterako, IBMrekin, Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Masterrean dualtasuna sustatzeko.

3. helburua

Ingeleseko eskaintza areagotzea masterretan, beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko, baita euskarazko eskaintza ere, gaitasun masterretan.

4. helburua

Kalitatezko berezko eta etengabeko prestakuntza sustatzea, gizartearen eskaerari erantzuteko, online eskaintza eta euskarazko eskaintza zabaldua.

Ekintzak

- 4.1. Ikasketa ofizialen prestakuntza eskaintza osatzea eta berrerabiltzea etengabeko prestakuntzan, eta alderantziz.
- 4.2. Kalitateko prozesuak hobetzea eta optimizatzea etengabeko prestakuntzan, kalitatea ziurtatzeko dagoeneko aurreratuta dauden kalitate prozesuekin uztartuta (ikastegietako akreditazio instituzionala, kalitate zigiluak...).
- 4.3. Etengabeko prestakuntza eskaintza bat diseinatzea euskaraz.

Bizkaiko Esperientzia Geletatik, Giza Zientziak unibertsitate tituluarekin batera, ikastaro osagarrien programa bat garatuko da 22/23 ikasturteari begira, Esperientzia Geletako ikasleen eta ikasle ohien etengabeko prestakuntza indartzeko. Hauxe da eskainiko diren irakasgaien zerrenda:

- Irratia: komunikatzeko beste modu bat. Mende beteko zinema Europan. Gerra Hotza (Historia garaikidea). XX. mendeko artearekin hitzordua. Espainiako zinemaren ABC. Almodovarretik Zulueta, hiru B-etatik igarota: Buñuel, Berlanga eta Bardem. Egungo Espainiaren Historia: II. Errepublikatik gaur egunera. Greziar heroi klasikoak, emakumeen prototipoak

(Literatura/Antzerkia). Ekialdera begirada. Japoniako artea. Gaur egungo historia zinemaren bidez. Etikaren historia. Musika hobeto gozatzeko eta ulertzeko. Emakume artistak: Errenazimendutik XIX. mendera.

Gainera, jarduera paraleloak egingo dira Giza Zientzien tituluan ematen den formakuntza osatzeko: hitzaldiak, zinema zikloak, abesbatza...

Giza Zientzietako Tituluaren 24. promozioa abian jartzeaz gain, 12 ikastaro osagarri antolatu dira ikasleen eta Bizkaiko Esperientzia Geletako ikasle ohien etengabeko prestakuntza sustatzeko. Eskainitako 156 plazak estali dira eta matrikulatutako ikasle bakoitzak batez beste lau ikastaro osagarri egin ditu. Era berean, jarduera paraleloak egin dira, esaterako, filosofiari buruzko hitzaldi ziklo bat, arrakala digitala nabarmena den ikasleentzako informatikako ikastaro bat, eta zenbait lantegi ere bai Leizaola Fundazioarekin lankidetzan, kulturartekotasunari eta elkarbizitzari edo gatazkak ebazteari buruz.

5. helburua

Bultzada ematea IKD hezkuntza ereduari eta GJHekin konprometitutako irakaskuntza berrikuntzako esparru berriari, diziplina anitzeko prestakuntza indartuta, baita zeharkako gaitasunak eta gaitasun digitalak ere.

6. helburua

Tituluen enplegarritasuna sendotzea, hartu-emanak estutuz ingurune sozioekonomikoarekin, eta ekintzailtza sustatuz.

Ekintzak

- 6.1. Lehen Enplegarritasun Planaren hedapena osatzea.
- 6.2. Tituluen diagnostiko eguneratu bat egitea, enplegarritasunaren ikuspegitik, eta oraingo eta etorkizuneko enplegu emaileekin kontrastatzea.
- 6.3. Ingurune profesionaletan prestakuntza areagotzea eta ikusgai jartzea, curriculumeke eta curriculumez kanpoko praktiken bidez eta enpresetan GRALak, MALak eta tesiak eginez.
- 6.4. Ikasleen ekintzailtzarako prestakuntza indartzea, baita irakasleena ere, hura bultzatzen.

Bizkaiko Campuseko Ekintzailtza eta Transferentziako Zuzendaritzatik (6.4 ekintzak):

- 22-23 ikasturtean, ekintzailtzari buruzko mintegiak eta ikastaroak egingo dira Arte Ederren Fakultatean (Ikasberri), Gizarte eta Komunikazio Zientzien

Fakultatean (Ikasberri Komunikazioa), Ingeniaritza Eskolan (Design Thinking) eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (ekintzailtza Insurtech-en).

Bete dira jarritako helburuak edo antzekoez ordezkatu dira:

- Arte Ederretako Ikasberri 2023ko martxoaren 20tik 23ra egin zen (9 lagun bertaratu ziren)
 - Komunikazioan ekiteko Ikasberri 2023ko apirilaren 17tik 20ra egin zen (12 lagun bertaratu ziren).
 - Design Thinking ikastaroa ezin izan zen egin. Horren ordez bi Ekin 48 mintegi egin dira 2022ko urriaren 3tik 7ra (bertaratuak: 16 lagun) eta 2023ko otsailaren 27tik martxoaren 3ra (bertaratuak: 18 lagun).
 - "Nola izan ekintzaile Insurtech-en" ikastaroa egin zen urriaren 3an, bertaratuak: 24 lagun).
 - Gainera, "prezioen estrategiei" buruzko mintegi bat egin da online 2023ko irailaren 28an (bertaratuak: 11 lagun).
- Enpresak sortzeko campusaren ekintzailtza programak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutarazteko jarduerak egingo dira ikasleei eta irakasle-ikertzaileei begira; besteak beste, hitzaldiak campuseko fakultateetan; zehazki, prestakuntza hitzaldi bana Plentziako PIEn, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko), Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Elkano), Ekonomia Zirkularren Masterrean, Zientzia eta Teknologia Fakultatean eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.
 - Informazio-hitzaldia Plentziako PIEn 2023ko urriaren 7an (65 lagun bertaratu ziren)
 - Hiru hitzaldi Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean otsailaren 9an (68 lagun), 2023ko apirilaren 26an (160 lagun) eta maiatzaren 8an (31 lagun).
 - Bat Elkanoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, martxoaren 16an.

- Ekonomia Zirkularreko masterrari zegokion hitzaldia ez zen egin, baina beste bi eman zaizkie (bat gaztelaniaz eta bestea euskaraz) Telekomunikazio Ingeniaritzako Masterreko ikasleei (24 lagun bertaratu ziren).
- Bat Zientzia eta Teknologia Fakultatean, otsailaren 15ean, enpresak aurkezteko jardunaldietan; 128 lagun bertaratu ziren.
- Bat Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatean, 2023ko urriaren 11n (bertaratuak: 28 lagun).

Jarduera osagarriak:

- Gainera, Zitek coffee egin da 2023ko maiatzaren 4an BAT dorrean UPV/EHUko pertsona ekintzaileentzat, eta kultura berritzeko finantzaziorako zerga pizgarriak aurkeztu dira. Bertaratuak: 14 lagun.
 - 2022ko urriaren 11n Zitek-ek bideokonferentzia bat egin zuen TETRIS proiektuko LATAM unibertsitateekin (70 lagun bertaratu ziren)
 - Enpleguaren eta enpresen aurkezpenaren jardunaldian parte-hartzea Bilboko Ingeniaritza Eskolan, 2023ko otsailak 16 (bertaratuak: 10 lagun).
 - Emakumeen "gure artean" topaketa, Zitek-eko emakume ekintzaileentzat eta Bizkaiko emakume ekintzaile seniorrentzat, Bizkaia Aretoan antolatu zen otsailaren 23an (bertaratuak, 36 lagun).
 - Hiru hitzaldi eman ziren Arte Ederren Fakultatean urtarrilaren 27an, martxoaren 9an eta martxoaren 24an; guztira, 90 lagun bertaratu ziren.
 - Konputazio kuantikoa artetik jardunaldia, 2023ko otsailaren 16an egin zen eta 25 lagun bertaratu ziren Arte Ederren Fakultatera.
- [Enpresa alorreko ideiak sustatzeko Think Big 2023 sarien deialdia eta Abiatu 2023 saria Zitek programako startup onenari.](#)

- Think Big sarien deialdia egin da eta 2023ko uztaileko dago aurreikusita sariak ematea.
- Ez dira egin Abiatu sariak. 2024an egingo dira, bi urtetik behin egiten direlako eta akats baten ondorioz 2023 gehitu zen arren, 2024an egin behar dira.

7. helburua

Online irakaskuntzarako berezko eredu bat zehaztea.

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

1. helburua

Diziplinaz gaindiko lankidetzak sustatzea unibertsitatearen I+G taldeen artean.

Ekintzak

- 1.1. Ikertaldeetako datu base hiru eledun bat sortzea, lehentasunak, erronkak edo egitekoak errazago bilatzeko (Horizon Europe, ZTBP 2030, RIS3, GJH, etab.)
- 1.2. Euskampus Fundazioan elkarlana bultzatzea, diziplinen arteko lankidetzak bultzatzeko.
- 1.3. Taldeen arteko diziplinaz gaindiko lankidetzarako deialdi publikoak bultzatzea.
- 1.4. UPV/EHUren ikergune propioak bultzatzea, baita haien harremana ere unibertsitatearen barruko beste antolakuntza unitate batzuekin eta haien parte hartzea unibertsitateko gobernantza organoetan.
- 1.5. Elkartzeko foroen sorrera bultzatzea, interes estrategikoko arloetan.

Bilerak egingo ditugu erakunde publiko eta enpresa erakundeekin, baliabideak lortzeko unibertsitatearen Bizkaiko ikerketa intentsiboko zentroetarako: hala nola FAAZ, PIE edo EHU Quantum Center (1.4 ekintza).

Bizkaiko campuseko errektoreordetzak zenbait bilera egin ditu erakunde publikoekin, ikerketa intentsiboko zentroak edo ikertaldeak indartzeko edo abian jartzeko. Horri dagokionez, aipatu beharra dago EHU Quantum ikerketako gunea abian jartzeko egindako lana.

2. helburua

Bultzada bat ematea ikertalde gutxi edo ikerketa tradizio urria izanagatik kultura aberastasuna sortzen duten jakintza arloei, arlo horiek sendotuz eta egonkortuz.

Ekintzak

- 2.1 UPV/EHUren ikerketa tradizio urrikotzat hartutako arloen mapa bat egitea.
- 2.2 Arlo horietan merezimenduak baloratzeko irizpideak identifikatzea, UPV/EHUren berezko deialdietan kalitatezko adierazle gisa onar daitezzen.
- 2.3 Prestakuntza edo dinamizazio ekintza espezifikoak inplementatzea, deialdietan talde horien partaidetza bultzatzeko, gidatzeko eta motibatuzko, bai eta merezimendu ebaluagarri berrien lorpenen orientatzeko ere.

Bilerak egin dira gizarte erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, gizarte politiken alorrean ikerketa sustatzeko.

3. helburua

Ikertalde berriak bultzatzea, eta ikertzaile berriei pizgarriak ematea, ikertzaile ibilbidearen eredu bat bultzatuz.

4. helburua

Ikerketa erronkak eta GJHen agenda (2030 EHUagenda) lotzea.

5. helburua

Bultzada bat ematea gizartearen kultura aberastasunean zuzeneko eragina duen ikerketaren aitortzari.

Ekintzak

- 5.1. Gizartearen eskaera aintzat hartuta, ezagutza dibulgatzeko lanetan ikertzaileen inplikazioa bultzatzea eta aitortzea.
- 5.2. Alfabetatze zientifikoko programetan (Horizonte Europa, FECYT, etab.) parte hartzea bultzatzea, gizartearen gure ikerketen garrantziaz jabetu dadin.
- 5.3. Dibulgazio zientifikoa merezimendu gisa txertatzea gure deialdietan, eta transferentziako seiurtekoen eskaera bultzatzea.
- 5.4. Ikerketa eta transferentziaren gizarte inpaktuaren neurketa eta ikusgarritasuna bultzatzea, jakintza arlo guztietan.

6. helburua

Ekintzailtza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea

Ekintzak

- 6.1. Jarduerak antolatzea, jabetza intelektual gisa erregistratu daitezkeen, kontratuak sor ditzaketen edo ekintzailtza eta enpresen sorrera erraztu ditzaketen emaitzen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa lantzeko.
- 6.2. Prestakuntza ekintzak egitea, gure unibertsitateak ezagutza sortzeko eta transferitzeko erakunde gisa betetzen duen papera balioan jartzeko, erabilera partekatua (Open Access, Creative Commons, etab.) eta emaitzen lizentzia sustatuz eta gizartean eta produkzio ehunean duen oihartzuna nabarmenduz.
- 6.3. Inguruko erakunde eta enprekin (bereziki ETE, kluster eta enpresa elkarteekin) lankidetzan jardutea, gure ezagutza zabaltzeko eta gure eskaintza teknologikoaren eta Ikerketako Zerbitzu Nagusien (SGIker) kontratazioa eskaintzeko.
- 6.4. Gure deialdietan ikerketa emaitzak dibulgatzeko laburpen bat sartzeko derrigortasuna barneratzea, Komunikazio Bulegoak laburpen hori erabiltzeko aukera izan dezan.

Transferentzia eta ekintzailtza zuzendaritzak parte hartzen du Bizkaia GovTech Lab-en eta Bizkaiko Ekintzailtza Zentroan (BAT), hainbat egitasmotan: hala nola Deia Innovation Sariak, B-Venture, BFaren Sarekin. Ekintzailtza lehiaketa euskal unibertsitateetako ikasleentzat, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien babesaz.

Adierazitako jarduera guztietan hartu da parte.

Lanean jarraituko dugu ZITEK programan, spin-off sorkuntzan eta garapenean, ekintzailtza kultura zabaltzeko UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko ikasleen eta langileen artean. 2000. urtearen hasieran sortu zenetik enpresa hazitegia 135 izan dira sortuak guztira. Gaur egun, ikasturte honetan, 22 enpresa daude 3 mintegietan (% 70 inguruko okupazioarekin), eta 4 enpresa berri sortzea espero da.

Kultura ekintzailea sustatzeko lanean jarraitu da. Guztira, 22 jarduera egin dira horretarako eta 1.369 lagunek (647 gizonek eta 722 emakumek) hartu dute parte.

2022-2023 ikasturtean 22 enpresa/proiektu inkubatu dira 3 mintegietan; horri esker okupazio-maila mantendu egin da eta 4 enpresa berri sortu dira.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (CEBEK) lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute ETE-entzako Berrikuntza Irekiko Unibertsitate-Enpresa Gela sortzeko. Sinatutako hitzarmenaren xedea da prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza arloko ekintzak egitea CEBEKeo enpresa elkartuekin batera. ETE-entzako Berrikuntza Irekiko Unibertsitate-Enpresa Gelaren xedea da gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, doktorego tesiak, bereziki arlo industrialekoak, eta borondatezko praktikak sustatzea. Ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza jardunaldiak ere aurreikusten dira, baita ikerketa zientifikoko edo garapen teknologikoko proiektuak ere. Bestalde, ikerketa zientifikoko edo teknologikoko baterako azterketak garatuko dira laneko talde mistoak eratuta eta laguntza bekak emango ditu CEBEKeo edo elkartutako enpresek unibertsitateko lanak sustatu, bultzatu eta garatzeko.

7. helburua

Kanpoko aliantzak indartzea, tokikoak nahiz nazioartekoak.

8. helburua

Gure unibertsitateak eginiko bikaintasun ikerketaren ikusgarritasuna bultzatzea nazioartean.

Ekintzak

- 8.1. Gure unibertsitatearen nazioarteko ikusgarritasuna bermatzea, ranking nagusietan gure posizioa hobetuz eta webgunearen ingelesezko edukiak eta sare sozialetan gure parte hartzea areagotuz.
- 8.2. ADDI gordailu instituzionalaren sarbidea eta erabilera zabaltzea eta erraztea, baita ingelesez ere.
- 8.3. Ikertzaileak identifikatzeko sistema bibliometrikoen erabilera sustatzea (ORCID, WOS, Scopus, etab.).
- 8.4. Nazioarteko aipamena duten doktorego tesiak egiteko laguntza politikak sustatzea.

Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak jarraituko du Bidaia Poltsen Deialdia bultzatzen. Horregatik Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdiko baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Campuseko ikertzaileen bidaia poltsak kudeatuko dira.

22-23 ikasturtean bidaia poltsen 70 eskabide egon dira eta 30 eman dira.

9. helburua

Euskaraz eginiko ikerketa sustatzea, eta beste hizkuntza batzuetan egindakoak euskaraz zabaltzen eta egokitzen laguntzea.

KULTURA ETA GIZARTEA

1. helburua

Gizartearekiko komunikazioa hobetzea, baita ezagutzaren dibulgazioa eta UPV/EHUren kultura legatua ere.

Ekintzak

- 1.1. Komunikazio prozedura zabaltzea fakultate, ikastegi eta unibertsitateko kideen artean, eta prestakuntza eskaintzea.
- 1.2. Fakultate eta eskoletatik komunikazio ekintza gehiago bideratzea komunikazio bulegora.
- 1.3. Ikasleen, irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen gizarte ekimena eta konpromiso zibikoa babestea, sustatzea, aitortzea eta zabaltzea.
- 1.4. Webgunea eta informazio publikoa hobetzea, marka irudia finkatzeko.
- 1.5. Aldizkako komunikazioa ezartzea erakundeekin eta eragile ekonomiko eta sozialekin.

(1.4 ekintza) Zenbait bilera egin dira Unibertsitateko komunikazio zerbitzuarekin, webgunea hobetzeko eta ondorioz gertuagokoa eta irisgarriagoa izateko erabiltzaileentzat.

Hitzaldiak, Jardunaldiak eta Unibertsitate Hedakuntzako ekintzen deialdia. Bi deialdi egingo dira 2022ko jarduerak babesteko. Deialdia egiten da Bizkaiko Campuseko webgunearen bidez.

22-23 ikasturtean bi deialdi egin dira unibertsitate luzapeneko jarduerak antolatzeko:

- 2022ko maiatzaren 27ko Ebazpena, 22-23 ikasturteko lehen erdiari dagozkion jardueretarako. Laguntzen 84 eskabide formalizatu ziren eta horietatik 69 egin ziren
- 2022ko abenduaren 12ko Ebazpena, 22-23 ikasturteko bigarren erdiari dagozkion jardueretarako. 101 laguntza eskabide. Formalizatutako eskabideak 99.
- Ebaluazio eta finantzazio irizpideen artean berariazko bat gehitu da eragin sozialari eta garapen jasangarriko helburuekin duen loturari buruz.

2. helburua

Lankidetza hitzarmenak eta proiektuak babestea, euskal sare sozioekonomiko eta kulturalarekin.

Ekintzak

- 2.1. Erregistroan arlo soziokulturalaren proiektu eta hitzarmen guztiak sartzea.
- 2.2. Irakasleei proiektu soziokulturalen sustapena eta garapena aitortzea (ikasleen parte hartzea bultzatzeko).
- 2.3. Erakunde publikoekiko unibertsitatearen harremanak eta irudia indartzea.

Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak ekintza hauek burutuko ditu.

Unibertsitatearen lana ehun sozioekonomiko eta kulturalarekin lotu asmoz, Unibertsitate-Enpresa eta Unibertsitate-Gizarte Gelak abian jartzea sustatu da. Arte Ederren Fakultateak Guggenheim Museoarekin Unibertsitate-Enpresa gela bat abian jartzeko egindako lana nabarmendu beharra dago edo REASein (Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea) batera Unibertsitate-Enpresa Gela bat abian jartzeko egindakoa.

Bereziki aipatzekoa da UPV/EHUren lehenengo Unibertsitatea-Gizarte Gela jarri dela abian; Bilboko Hezkuntza Fakultateak eta Euskadiko Down Sindromearen Fundazioak jarri dute abian. Gela hau otsailean jarri da abian eta oihartzun mediatiko handia izan du.

(2.1 ekintza) 2022-2023 ikasturtean, Idazkaritza Nagusiaren erregistroan sartuko dira Bizkaiko Campusean eginiko hitzarmen guztiak. Gainera, finkatu egingo da Batzorde Iraunkorrean edo dagokion Batzarrean hitzarmenak eskatu eta aurkezteko protokoloa, garrantzia emanez pertsoneri edo ikastegi sustatzaileei. Gizarteratu egingo da modu ulergarri batean UPV/EHUren eta beste eragile batzuen arteko hitzarmenak izapidetzeko eta kudeatzeko prozesuari buruzko informazioa, lankidetza hitzarmenak egin nahi dituzten komunitate akademikoko pertsonen horretarako bidea eta egin beharreko urratsak ezagut ditzaten.

Bizkaiko campusean formalizatutako hitzarmen guztiak Idazkaritza Nagusiko Erregistroan sartu dira. Hitzarmenak eskatu eta formalizatzeko protokoloaren erabateko kontsolidazioa eta sozializazioa ezin izan da egin,

Idazkaritza Nagusia protokoloaren berrikuntza bat ari baita abian jartzen, Campuseko Batzar eta Batzorde iraunkorren onartutako hitzarmenetan eragina duten hitzarmenak aurkezteko. Ikasturte honetan hitzarmenen aurkezpenean aldaketak ezartzen ari dira hitzarmenak onartzen diren Campuseko Batzar edo Batzorde iraunkorretan. Gaur egun, Hitzarmenak sustatzen dituzten pertsonak arduratzen dira Campuseko Batzarrean edo Batzordean haiek aurkezteaz, bai eta hitzarmenei buruz egon daitezkeen zalantzak ebazteaz ere.

Euskararen eta Kulturaren arloko Zuzendaritzatik (2.1 eta 2.3 ekintzak):

- lankidetzak hitzarmenak egingo dira honako hauekin: KCD-GGKE (KULTURA, COMMUNICATION, DESARROLLO), ZINEBI (Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Jaialdia), Loraldia, Institut Français.
- harremanak estutuko dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Gabriel Aresti Katedra sortzeko eta Uda Ikastaro berriak antolatzeko (Bilbotik kanpo).
- harremanak estutuko dira Bilboko Udalarekin, kultura egitasmoetan laguntzeko: hala nola JA! JAIALDIA eta Javier Jaénen erakusketa.

Lankidetzak hitzarmenak egin dira ZINEBI eta LORALDIArekin. Institut Françaisekin ez da beharrezko iritzi hitzarmen bat formalizatzea, baina akordio bat egon da LE CORPS INCORRUPTIBLES erakusketa antolatzeko (2023ko otsailaren 15etik martxoaren 10era) eta 800 bisitari izan dira.

LORALDIArekin lankidetzan aritu gara SORMEN OLA programan: gazteentzako (18-29 urte) programa honetan kultur sormena eta euskal kulturara gerturatzea lotu dira lehen mailako eta diziplina desberdinetako euskal artistekin zuzeneko harremana izanda. 5 larunbat goizetan izan da urtariletik maiatzera. Tetuan filma ere eman da LORALDIA FESTIBALEan (120 ikusle).

Gabriel Aresti Katedra sortzea onartu da 2023ko ekainaren 5eko Gobernu Kontseiluan; Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzazioa izango du.

Udako Ikastaro bat sustatu da (Bideojokoak euskararentzat). Bilbon izango da uztailean.

Bilbotik kanpo, Gernikan, Bermeo eta Portugaleten programatu dira Udako Ikastaroak.

2022ko udazkenean EHUKulturak parte hartu zuen Bilboko Udalarekin JA! JAIALDIAn (2022ko urriak 7-8-9-10) eta Javier Jaénen erakusketarekin ere bai (2022ko urriaren 13tik azaroaren 4ra). Ja! jaialdian 1.064 ikusle izan ziren eta Javier Jaénen erakusketa 1.646 lagunek ikusi zuten.

Bilboko Udalarekin programatu da, halaber, *No soy tu gitana* antzezlan (2023ko martxoak 17) Bizkaia Aretoan (325 ikusle).

Tokiko zenbait erakunderekin (Arriaga Antzokia, Bizkaiko Aldundia, Bilboko Udala, Azkuna Zentroa eta Alhondiga, besteak beste) lankidetzan egin zen Bizkaia Aretoan ZINEBI EXPRESS ekitaldia ZINEBI 64-ren barruan.

Erakunde zenbaitekin lankidetzan, Bizkaia Aretoa-UPV/EHUn egin da honako erakusketa hau: IRAGANA ILUSTRATZEN: MAURICIO ANTÓN ETA PALEOARTEA (2023ko maiatzaren 2tik 28ra), 705 lagun bertaratu ziren. Ekainaren 2tik abuztuaren 21era Bergaran programatuko da erakusketa.

Era berean, 22/23 ikasturtean, Ostatu Zuzendaritzak eta Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiak lankidetzan hitzarmen bat izenpetuko dute Bilboko Musika Kontserbatorioarekin, eta etxebizitza solidarioen hitzarmenak berrituko dira Bilbo, Ermua eta Santurtziko udalekin.

Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga Musika Kontserbatorioarekin hitzarmena berritu da eta elkarlan estuan jarraitzen da Bilbo, Santurtzi eta Ermuko udalekin, etxebizitza solidarioen programan. Peñascal kooperatibarekin ere akordio batera iritsi gara UPV/EHUko ikasleek pisuen alokairu solidarioko programetan parte har dezaten.

Bizkaiko Esperientzia Gelak harremanetan jarriko dira inguruko kultura eta gizarte eragileekin, eta harremanak estutuko dira erakunde publikoekin (Bilboko Udala eta Foru Aldundia); gainera, elkarlanean jarraituko dugu Esperientzia Geletako ikasle ohien elkarteekin eta Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroen Espainiako Elkartearekin (AE-CUM).

Bizkaiko Esperientziaren Geletan harremanak izan dira inguruko kultura eta gizarte arloko eragileekin, hala nola museoekin, fundazioekin eta hainbat motatako kooperatibekin, etorkizun hurbilean loturak areagotu

eta lankidetzak aktiboagoa izateko. Era berean, Bizkaiko Esperientzia Geletako ikasleen eta ikasle ohien elkarteekin (ACAEX-EGIKE) lankidetzan jarraitu da, 20 mintegi antolatu dira eta 526 ikasleri eman zaie estaldura.

Bestetik, Bizkaia Aretoari dagokionez:

- Gaur arte egin izan diren jarduerak mantentzeko ahalegina egingo dugu, eta saiatuko gara halaber jarduera kopurua handitzen, bisitariak erakartzeko aretora eta UPV/EHUren marka indartzeko. Aipatzekoak dira, besteak beste: **Musika Música** jaialdia, **Bilboko Kalealdia**, **Gau Zuria** (hiribilduaren sorreraren urteurrena ospatzeko ekimena) eta **Open House**.
- Urriaren 29an, **BBK Kunaren lehen urteurrena** ospatzeko hiriko hainbat eraikinetan egingo diren ekitaldietan parte hartuko dugu. Dantza bertikaleko ikuskizuna eraikinaren fatxadetan.
- 2022an, Bizkaia Aretoa-UPV/EHU lehen aldiz izango da **JA! Jaialdia** Umorezko Literatura eta Artearen Nazioarteko jaialdiaren egoitzetako bat. Jaialdia urrian egingo da eta Bizkaia Aretoan Javier Jaénen "Primer Asalto" erakusketa eskainiko da.

2022-23 ikasturtean Bizkaia Aretoan 578 ekitaldi egin dira, eta guztira ia 60.000 lagun (59.335) bertaratu dira. Unibertsitatearen ekitaldiak, beste erakunde eta instituzioekin lankidetzan antolatuak eta UPV/EHUz kanpokoak izan dira.

3. helburua

Lider izatea euskal gizartearen kultura zientifikoan eta humanistikoan, arreta berezia jarriz euskararen eta euskal kulturaren.

Ekintzak

- 3.1. Kultura zientifiko eta humanistikoaren eskaintzarako irizpideak zehaztea.
- 3.2. Ikasleak, langileak eta gizartea euskararen eta euskal kulturaren eskaintzara erakartzea. Ikasleentzat lehenetsitako ekintzak bultzatzea.
- 3.3. Euskarazko produkzioa indartzen jarraitzea.
- 3.4. Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea unibertsitateko kideen artean.
- 3.5. III. Euskara Plana ebaluatzea eta IV. Euskara Plana egitea.

3. helburuari dagokionez eta Euskara eta Kultura arloko Zuzendaritzatik (3.2 eta 3.4):

-hainbat jarduera sustatuko dira UNIKOAK programaren barruan.

-UNIKOAK mahai ingurua: *Uniaren ostein, zer?*, Bizkaia Aretoan; UPV/EHUko 230 ikasle bertaratu ziren (2022ko azaroaren 4a).

-Ikasleek (UNIKOAK programaren oinarria) proposatutako ekintzen artean, besteak beste, Ondiz Jiménez ikaslearen GRALean oinarritutako IKIGAI aurkeztu zen 2022ko urriaren 20an (20 lagun bertaratu ziren).

-EKROFEST musika jaialdia 2023ko apirilaren 28an egin zen, Leioan. Arte Ederren Fakultateko ikasleek (Sorkuntza eta Diseinuko Gradua) antolatu zuten, eta 80 lagun bertaratu ziren.

-UNIKOAK Film laburren II. lehiaketaren deialdia egingo dugu.

UNIKOAK Film laburren II. lehiaketaren deialdia egin da.

-Mahai ingurua UPV/EHUko ikasleentzat, sektore zinematografikoan lanean diharduten UPV/EHUko ikasle ohien eskutik (titulua zehazteke).

Uniaren ostein, zer? mahai ingurua ere UNIKOAK programako ekintzetako bat izan da.

-Errektoreordetzaren Bikain ziurtagiriaren ebaluazioa planifikatuko da, eta beste ikastegi batzuk animatuko dira aurkeztera.

Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza ezin izan da BIKAIN ziurtagirira aurkeztu 2022-2023 ikasturtean; izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez du zabaldu ziurtagiria eskatzeko deialdia.

-euskal kulturari buruzko tailer eta jarduera espezifikoak sustatzea.

Txalaparta tailerra, asteazkenero (15:00-17:00) 2023ko otsailetik martxora, 20 lagunek hartu dute parte (ikasleak, AZPko langileak eta irakasleak).

Batukada tailerra, asteazkenero (15:00-17:00) 2023ko apiriletik maiatzera. 10 lagunek hartu dute parte (ikasleak, AZPko langileak eta irakasleak).

- bultzada EUSKARALDIari eta EUSKARAREN ASTEARi (azaroak 18 - abenduak 2), eta elkarlana Euskararen eta Kulturaren arloko beste zuzendaritzekin, jarduera agenda bakar bat sortu eta kudeatzeko UPV/EHU osoari begira.

EUSKARALDIA Leioan (2022ko azaroaren 18a): ekitaldia eta hasierako argazkia.

EUSKARALDIaren eta EUSKARAREN ASTEaren barruan, EHUNKA BAGARA bideopodcast sustatu da. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleek egin zuten, eta unibertsitateko estamentu guztietako kideek hartu zuten parte. Leioan, EUSKARA AZENTUEKIN (mahai ingurua eta bertsolariak), 2022ko abenduaren 1ean (bertaratuak: 100 lagun). Horrez gain, LOREAK BELAUNETAN dokumentala programatu zen abenduaren 2an. Ondoren, solasaldia egin zen dokumentalaren zuzendariarekin eta protagonistekin (75 ikusle). Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, EUSKARAREN EGUNA ospatu zen 2022ko abenduaren 1ean, eta EHUKulturak "Euskaraz eginiko material akademikoa" mahai ingurua babestu zuen. Halaber, Txopet taldearen kontzertua ere egin zen.

Honako hauek izan dira unibertsitateko kideak euskal kulturara hurbilarazteko beste ekintza batzuk:

-Harrera Asteko ekimenak/ Comienzo de Curso: Leioan bi antzerki talde programatu ziren (TRAPU ZAHARRA, *Turistreando* antzezlanak-100 lagun- eta DEMODE, *Itsatsita* antzezlanak -100 lagun), bai eta bi dantza ikuskizun ere de (HAATIK, *Uri* ikuskizuna-300 lagun- eta KUKAI, *Topa* ikuskizuna-100 ikusle). SONAKAYren kontzertua ere programatu zen, baina 2022ko urriaren 21era atzeratu egin behar izan zen Bizkaia Aretoan egiteko (200 lagun).

-Liburuaren Astea / Semana del Libro: Argitalpen Zerbitzuarekin argitaratu duten UPV/EHUko autoreei egindako elkarrizketen grabazioan hartu da parte.

Bestetik, Bizkaia Aretoak formatu presentziala berreskuratuko du Zientzia Astea, Naukas Kids eta Ikertzaileen Gaua egitasmoetan.

Bizkai Aretoak formatu presentziala berreskuratu du Zientzia Astea eta Naukas Kids egitasmoetan (5.645 eta 744 lagun, hurrenez hurren).

4. helburua

Erreferentzia eredu gisa indartzea, genero berdintasunean, inklusioan eta garapen jasangarrian.

Ekintzak

- 4.1. Barruan eta kanpoan egiten diren jardueren berri ematea.
- 4.2. IKD3 estrategiaren garapenerako lagungarriak diren programak irakasleen artean zabaltzea, irakasgai guztietan txertatzeko.
- 4.3. Ingurumenaren kontserbazioa, generoa, inklusioa eta garapen jasangarria bultzatzen duten taldeak koordinatzea.
- 4.4. Premia bereziak dituzten kolektiboek (desgaitasuna duten pertsonak, errefuxiatuak, gizarte, ekonomia eta kultura egoera ahulean dauden kolektiboak, etab.) laguntzeko programak indartzea.

Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiko ikasle talde batek jarduerak antolatzen ditu ingurumen babesaren, generoaren, inklusioaren eta garapen jasangarriaren alorretan. Besteak beste, jarduerak antolatzen dituzte Martxoaren 8aren ospakizunetan, elikagaiak biltzen dituzte elikagai bankuarentzat, elastikoak eta kirol jertseak saltzen dituzte eta saskiak zozkatzen dituzte dirua lortzeko GKE batentzat. (4.3 ekintza)

Ikastetxe Nagusiko ikasleek ingurumenaren babesa, generoa, inklusioa eta garapen jasangarria sustatzeko ekintzak antolatu dituzte eta haietan parte hartu. Besteak beste honako ekintza hauek egin dituzte: M8 ospatzeko kartelak egin, kirol jertseak eta elastikoak saldu, Sortarazi GKEarentzat dirua lortzeko saskiak zozketatu eta elikagaien bankuari elikagaiak biltzen lagundu.

Inklusioaren arloan, azpimarratzekoa da, halaber, Ostatu programaren barruan sartu dela Peñascal Fundazioaren, Agintzariren eta beste erakunde batzuen ostatu eskaintza. Horren xedea da gure ikasleek gazteekin, atzerriko pertsonekin edo kalteberatasuna duten pertsonekin partekatzea etxebizitzak.

5. helburua

Gizartearen beharrei, erronkei eta arazoei lotutako jarduerak egitea, bai irakaskuntza eta ikerketaren arloan, bai ezagutzaren transferentziaren arloan.

Ekintzak

- 5.1. Gai soziokulturalei lotutako ekimenak sortzea, gizarte eragileen lankidetzaz, EHUgune moduko espazioetan eta gizarte inpaktuko katedretan, besteak beste.
- 5.2. Boluntariotza bultzatzea.
- 5.3. Erakundeak gizartearekiko harremanean duen identitateari buruzko gogoeta bultzatzea.
- 5.4. EHUalumni sarea sustatzea, eta Mentoring, Enbaxadore eta Cicerone programak sendotzea.

Esperientzia Geletatik boluntariotza bultzatzeko, elkarlana sustatuko da ikasleen eta gizarte ekimeneko kooperatiben eta antzeko erakundeen artean. Halaber, Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian, gazte solidarioen programaren helburua da, gure ikasleek etxebizitza aurkitzeko duten arazoa konpontzen laguntzeaz gainera, ikasleek lan solidarioak egitea; hala nola astean 4 orduz zenbait GK Eri laguntzea (5.2 ekintza).

Bizkaiko Esperientzia Gelak saiatu dira boluntariotza eta elkarlana bultzatzen ikasleen eta gizarte ekimeneko kooperatiben artean, 2023ko azken hiruhilekotik aurrera egingo diren mentoretza sozialeko deialdietan parte har dezaten.

Bizkaia gara erakundearekin lehenengo harremanak izan ditugu, Bizkaiko lurraldean unibertsitateko kideen aktibazioa eta partaidetza soziala bultzatuko duen Unibertsitate Gizarte Gela bat sustatzeko.

PERTSONAK

1. helburua

Lan baldintza egokiak eta lanpostu egonkorak sustatzea, baita elkarlanean oinarritutako giza ingurune integratzaileak ere.

2. helburua

Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen beharren urte anitzeko plangintza bat egitea, eta haien ibilbide profesionalean laguntzea.

3. helburua

Langile taldearen gaztetzea bultzatzea, erreleboen bidez eta langileen egonkortze goiztiarren bidez.

4. helburua

Lan indibidualaren eta kolektiboaren ospea eta aitortza sustatzea.

Pandemiaren etenaldiaren ondoren, Bizkaiko Campusak azken hiru urteotan erretiroa hartu dutenen eta erakundean 25 urte bete dituztenen omenaldia antolatu du (omenaldi ekitaldia EHUorkestraren kontzertuarekin).

5. helburua

Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza prozesuan duen zeregin aktiboa eta erantzukizuna sustatzea.

Ekintzak

- 5.1 IKD i3 hezkuntza eredu propioarekin lerrokatutako irakaskuntza metodologia aktiboen inplementazioan aurrera egitea.
- 5.2 Prestakuntza jarduerak eta ikasleen akonpainamendu programak (mentoring) antolatzea, eta horien bidez, UPV/EHUren katalogoan jasotako zeharkako gaitasunen garapena erraztea.
- 5.3 Egoeran zaugarrian dauden pertsonak (degaitasunak dituztenak, errefuxiatuak, zailtasun ekonomikoak dituztenak...) gizarte inklusioaren agenteak izan daitezen sustatzea, inklusio planaren ebaluazio eta jarraipenaren bidez.

Ikastetxe nagusi horretan ere, jarraipena eman nahi zaio bigarren mailatik gorako ikasleak ikasle hasiberriekin elkartzen dituen jarduerari, helburua izanik graduari buruzko argibideak eta laguntza eskaintzea ikasle berriei (liburuak eta apunteak barne) (5.2 ekintza).

Goragoko mailetako ikasleek lehenengo mailako ikasleei graduaren gorabeheren berri eman diete.

6. helburua

Pertsonen egokitzapena eta prestakuntza indartzea, aintzat harturik unibertsitatearen eginkizuna eta ikuspegia.

Ekintzak

- 6.1. Jarduerak antolatzea (tailerrak, ikastaroak), langileek eta ikasleek gaitasun digitalak eskuratu ditzaten.
- 6.2. EHU-agenda 2030en esparruan, jarduerak antolatzea, unibertsitateko kideak jasangarritasunarekin bat etor daitezen.
- 6.3. Unibertsitateko kideen (AZPko langileak, irakasle-ikertzaileak eta ikasleak) ingeleseko hizkuntza gaitasuna bultzatzea.
- 6.4. Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea unibertsitateko kideen artean.

Campuseko Errektoreordetzatik, ikasleei lagunduko zaie ikastaro eleaniztunak eta akreditazio probak egiten.

Mantendu egingo ditugu atzerriko hizkuntzen zentro ofizialek unibertsitateko kideei eskaintzen dizkieten abantailak (Institut français d'Espagne - antenne de Bilbao, EUSKADITALIA Centro Oficial de Lengua y Cultura italiana, eta Centro de estudios Chinos Lu Xun). Gainera, mantendu egingo da ere SPIK hizkuntza laborategiarekiko elkarlana, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean kokatua; euskara eta ingeles ikastaroak ematen dituzte, hizkuntza eskakizunak lortu edo hizkuntza hobetzeko. Diruz lagunduko dira langileen ingelesa hobetzeko ikastaroak.

Atzerriko hizkuntzen hizkuntza-eskola ofizialek (Institut français d'Espagne - antenne de Bilbao, EUSKADITALIA Italiako Hizkuntza eta Kulturaren Institutu Ofiziala, eta Lu Xun txinatar Ikasketen Zentroa) unibertsitateko kideei eskaintzen dizkieten baldintza onuragarriak eutsi zaie.

Era berean, SPIK Hizkuntza Laborategiarekiko lankidetzari eutsi zaio. Laborategi hori Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean dago eta euskara eta ingelesezko ikastaroak ematen dira, bai profilak lortzeko, bai hizkuntza hobetzeko.

7. helburua

Informazio sistemen/aplikazioen berrikuntza, malgutasuna, integrazioa eta iragazkortasuna ahalbidetzea, pertsonen zerbitzura egon daitezen.

8. helburua

Adi egotea, ekonomia arrazoiak direla eta graduondoko ikasketak egin nahi dituzten ikasleen artean ager daitezkeen estratifikazioak minimizatzeko.

9. helburua

Bizitza pertsonala eta lana kontziliatzeko erraztasunak ematea, eta ibilbide profesionalean emakumeak kaltetzen dituzten genero joerak gainditzeko neurriak bultzatzea.

GOVERNANTZA ETA BALIABIDEAK

1. helburua

Unibertsitateko kideen erantzunkidetasuna, baterako partaidetza eta inplikazioa sustatzea, UPV/EHUREN erabakiak hartzean eta haren jarduerak garatzean; bereziki, gazteen artean.

Ekintzak

- 1.1. Ikasleen II. Partaidetza Plana egitea, eta araudia erreformatzea, kolektibo horren partaidetza eta harekiko komunikazioa errazteko.
- 1.2. Hainbat gairi buruzko lan taldeak eratzea, eta horietan ikasleek, AZPko langileek eta irakasle-ikertzaileek parte hartzea.
- 1.3. Partaidetza protokoloa erabiltzea, arauak egiteko prozeduran.

2022/23 ikasturtean, aldizkako bilerak egingo dira ikasleen ordezkariekin (Ikasleen Kontseiluko kideak edo Ikasgelako ordezkariak).

Aldian behin bilerak egin dira UPV/EHUko eta Bizkaiko Campuseko ikasleen kontseiluekin, baterako ekintzen plangintza egiteko eta ikasleen proposamenak eta kexak jasotzeko. Era berean, bilera bat egin zen unibertsitateko zenbait estamentutan inplikaturako ikasleekin, haien kezkak eta proposamenak ezagutzeko, eta harremanetan izan gara ikasleen zenbait elkarterekin.

2. helburua

Azpiegitura egokiak sustatzea campus adeitsuagoak sortzeko eta unibertsitate bizitza indartzeko.

Ekintzak

- 2.1. Urte anitzeko azpiegituren plan bat egitea, transferentzia, eztabaida, kultura eta dibulgazioa bultzatzeko espazioak izango dituen eta gehiago irekitzeko aukera emango diona gizarteari eta unibertsitateko kideei. Plan horretan, instalazioetan erabiltzaileen segurtasunerako neurriak ezarriko dira, eta irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko neurriak bultzatuko dira, baita plaza berriak ere unibertsitate egoitzetan.
- 2.2. Garraio publikoa edo autoaz bestelako garraiobideak erabiltzeko mugikortasun jasangarriko planak onartzea, beste erakunde publiko batzuen lankidetzaz. Campusetarako sarbidea eta campusen arteko garraioa erraztuko duten neurriak hartzea.
- 2.3. Ikasketak, bizitza pertsonala eta lana kontziliatzeko lagungarriak izango diren kultura eta kirol jarduera erakargarrien eskaintza bat osatzea, gizarte eragileen eta erakunde publikoen lankidetzaz.
- 2.4. Ingurumen eta osasunaren arloko lehen kudeaketa plana garatzea, trantsizio energetiko-klimatikoaren testuinguru berrira egokituta.

2022/23 ikasturtean, hainbat obra egingo dira campusaren azpiegiturak hobetzeko, gaur egun eraikinek dituzten gabeziak pixkanaka konpondu eta indarrean dauden araudiak betetzeko. Obra horien bidez, besteak beste, laborategiak prestatu, segurtasuna hobetu eta hainbat gune egokituko dira. Gainera, amaitutako lanen segimendua egingo da.

Alor honetako lan ildo nagusiak izango dira:

- Basurtun egitekoa den Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berriaren obren lizitazio berria, adjudikazioa eta obren hasiera.
 - 93/22 PA lizitazio berria (52.969.053,90 euroko aurrekontuduna, BEZik gabe) argitaratu zen, 78/21 PA lizitazioan (2022/12/27koa, 44.140.878,25 euroko aurrekontuduna, BEZik gabe) uko egiteagatik. Enpresa adjudikazioduna Ferrovial Construcción, S.A. – EBA ABEEa izan da, 51.383.556,47€ko zenbatekoan (62.174.103,33€ BEZa barne) eta adjudikazio data 2023ko maiatzaren 10a.
- Itsasgunea proiektuaren lizitazio berria eta obren hasiera EIB III.n.
 - Lehengaien prezioen eboluzioak, obren lehiaketetarako prezio publikoek eta, azkenik, jarduketaren ezaugarriek beraiek sortu zuten zalantza zela eta, obra hirugarren deialdian, prozedura irekian, (15/23 PA) adjudikatu da 2023ko apirilaren 23an. Enpresa adjudikazioduna

Ormak Contrucción SLU izan da, 1.181.137,11 €-an (BEZik gabe). Obrak egikaritzen hasteko epea (6 hilekoa) 2023ko apirilaren 21a izan da.

- Areto Nagusiaren inguratzaille termikoa hobetzea.
 - Eginda. 2023ko maiatzaren 9ko onarpen akta.
- Areto Nagusiaren aireztapen sistema hobetzea.
 - Eginda. 2023ko ekainaren 30eko onarpen akta.



- Autokontsumorako plaka fotovoltaikoak instalatzea campuseko hainbat eraikinetako estalkietan (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Leioako Biblioteka, Leioako Galdaren Aretoa, Hezkuntza Fakultatea eta Polikiroldegia).
 - Plakak instalatzeko hurrengo lizitazioa, prozedura irekian. Aurretik Leioako galdara eraikineko estalkia berrituko da, gainkargen eskakizunak betetzeko.



- Karga elektrikoko puntuen instalazioari buruzko azterlana.

- Hurrengo lizitazioaren bidez, karga puntuak instalatu eta kudeatu nahi dira, 29/2021 Errege Dekretua betetzeko.

Ikastetxe Nagusian, ikasleek partekatzen dituzten areto eta guneak hobetzen jarraituko dugu, bizikidetza eta elkar ezagutza sustatzeko gradu desberdinetako ikasleen artean. Ahal den guztian lagunduko zaie ikasleei kultura eta kirol jarduerak antolatzen.

Ikastetxe Nagusian espazio komunak hobetzen jarraitu da eta kultura- eta kirol-jarduerak sustatu dira, hala nola irteerak, antzerkia, padel-txapelketa, futbol-txapelketa...

Eraberritze, egokitzapen eta hobekuntza obren deialdia: BHH. Deialdi bat egiten da. Ikasturte honetan obra hauek egitea aurreikusi da.

- Estalkiak: campuseko hainbat eraikinetako estalkietan esku hartzen jarraituko da, dauden iragazpen gehienak eteteko.
- Estalkiak: Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko hondatutako estalkiak osorik konponduko dira.
- Estalkiak: campuseko eraikin guztietako erretenen eta zorrotenen garbiketa orokorra egingo da.
- Klimatizazioa: klimatizazio-ekipoak ordezkatzeko dira campuseko hainbat eraikinetan: ZTF, Arte Ederrak, BIE I, PIE eta Esperientzia Gelak.
- PCI sistema eguneratzea Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko), Bizkaia Aretoan, Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian.
- Jarduketak egingo dira BBAAren eta EIB I.aren fatxadetan.
- FEB eta FCCSSyCn irakaskuntza-espazioak egokitzeko obrak egiten ari dira.

Jardueren planean proposatutako eta arestian adierazitako obrak egin dira.

Irakaskuntza azpiegitura: deialdi bakarra egingo da irakaskuntza laborategien azpiegiturarako, ikastegi eta sailei zuzendua, irakaskuntza praktikoa eraginkor batek behar duen material inbentariagarriaz hornitzeko.

Azpiegitura deialdia egin da. Hona hemen emandako kopuruak:

IKASTEGIA	Emandakoa
ZUZENBIDE FAKULTATEA- BIZKAIKO ATALA	12857,49
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA	140000,00
ARTE EDERREN FAKULTATEA	136490,83
EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA	97071,95
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA	76833,94
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA	65361,01
BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA	210000,00
BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA	46755,00
LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA	9816,92
GUZTIRA	795121,69

Bizkaiko Campusetik eta Ikasleen, Mugikortasunaren eta Kirolen arloko Zuzendaritzaren barnean, sentsibilizazio ekintzak egingo dira Europako mugikortasun astearen harira (aurtengo lema: "Konbinatu eta mugi zaitez"), eta garraiobide alternatiboan erabilerari sustatzen ahaleginduko gara. Hori horrela, patinete elektrikoak alokatzen dituen enpresa batek argibideak emango ditu haien erabilerari buruz, eta gidatutako ibilbide bat antolatuko du, Leioako metro geltokian hasi eta Mikel Laboa plazan amaituko dena. Gainera, Formula Student eta Moto Student proiektuen auto eta moto elektrikoak erakusketa egingo da. Programaren barruan daude ere Arboretum-ean egin ohi den ibilaldia, interpretazio geologiko eta biologikoarekin, eta argazki lehiaketa. Azkenik, eta berrietasun gisa, Bilboko Udalarekin elkarlanean, UPV/EHUko ikasleek hainbat ibilbide egingo dituzte hirian barrena garraiobideak konbinatuta.

Mugikortasunaren Europako astea zela eta (irailak 16-22), sentsibilizazio kanpaina egin zen, eta garraiobide alternatiboak ikusarazten saiatu ziren. Jarduera horien artean, patinete elektrikoak alokatzeko enpresa batek ikastaro bat egin zuen tresna elektriko horiek behar bezala erabiltzen ikasteko, eta ibilbide gidatu bat antolatu zen Leioako metroaren geltokitik Mikel Laboa plazaraino. Horrez gain, Formula Student eta Moto Student-en autoa eta motor elektrikoak ikusgai jarri ziren Mikel Laboa plazan,

proiektu horiek ezagutzera emateko. Beste jarduera batzuk ere egin ziren, besteak beste ibilaldi gidatua arboretumean (interpretazio geologikoa eta biologikoa) eta argazki lehiaketa.

Azkenik, eta Bilboko Udalarekin lankidetzan, UPV/EHUko ikasleek hainbat ibilbide egin zituzten ikusteko zein den Bilbon mugitzeko modu jasangarriena. Horretarako, garraioak konbinatu zituzten.

Lankidetzan arituko gara hainbat erakunderekin (Bizkaiko Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza, besteak beste), mugikortasun jasangarriari egin diezaiokegun ekarpena baliagarritzat jotzen den egitasmoetan.

Bilerak egin dira zenbait erakunderekin (Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arratiako Mankomunitatea, besteak beste), garraioa hobetzeko, batez ere Leioako eremurako garraioa.

Bestetik, areagotu egingo dira mugikortasun pertsonaleko ibilgailuentzako gunek eta bizikleten aparkalekuak; adibidez, Plentziako Itsas Estaziokoa bezalako aparkalekuak.

Ikasturte honetan bizikletak aparkatzeko plazen kopurua handitu egin da Leioako eremuan, eta hiru aparkaleku berri jarri dira: bat liburutegiaren inguruan, bat Hezkuntzako garajean eta beste bat errektoretzaren eraikinaren behealdean. Halaber, aparkaleku bat jarri zen Plentziako Itsas Estazioan.

Azkenik, Campuseko Errektoreordetzatik, dutxen zerbitzua sustatu eta koordinatuko da, dutxak dituzten ikastegietan, garraibide alternatiboen erabilera (bizikletena bereziki) bultzatzeko.

Campuseko Errektoreordetzak dutxak erabiltzea sustatu eta koordinatu zuen, dutxak dituzten ikastegietan, Campusera iritsi ondoren horiek erabiltzea eskatzen duten garraibide alternatiboen erabilera bultzatzeko.

Ikasturte honetarako jarduera planean programatu gabeko jarduera gisa, patinete elektrikoak alokatzeko proiektu pilotu bat egin zen lehen lauhilekoan, Leioako eremuan, Campusera sartzeko garraibideen eskaintza handitzeko.

Ikasleen, Mugikortasunaren eta Kirolen arloko Zuzendaritzatik ere, kirol jarduera bultzatuko da, ahalik eta kirol mota gehien sustatuz, unibertsitateko kide guztiengana heltzeko. Campus osasungarriaren ideia indartzeko, kirol zerbitzuak jarduera ugari bultzatuko ditu:

- **Jarduera fisikoa eta kirola oro har sustatzea.** Unibertsitateko kideek eginiko jarduera fisikoaren kantitatea eta kalitatea areagotzea.

Jarduera fisikoa eta kirola sustatu dira, unibertsitateko kideen artean jarduera horren ikusgarritasuna areagotzen saiatzeko. ZTF/FCTko ikasleekin elkarlanean antolatutako ping pong txapelketak, liburutegiaren ondoko eremu batean saskia jartzeak, Frisbee jardunaldi bat egiteak eta antzeko jarduerak Campusean kirola ikusarazten lagundu dute.

Bizkaiko Campuseko kirol jarduera guztietan izandako parte hartze orokorrari buruzko datuen arabera, guztira 7.916 partaide izan dira: 4.275 gizonezko, 3.640 emakumezko eta 1 ez-bitarrek parte hartu dute: hau da, unibertsitateko kideen %90etik gora.

- **Kirol txapelketak.**

Zenbait txapelketa eta lehiaketa egin dira, hala nola Bizkaiko Campuseko Txapelketa eta Udaberriko Torneoa. Guztira, 2.775 ikaslek hartu dute parte (1.992 gizonezko eta 783 emakumezko).

- **Naturan eginiko jardueren programa.**

Asmo handiko naturako jardueren programari eutsi zaio.

- **Kirolaren astea.** Unibertsitatean alor honetan egiten diren jarduerak ezagutarazteko eta unibertsitateko kideak jarduera horietara erakartzeko. Gainera, aitortza ekitaldi txiki bat eskainiko zaie Espainiako eta Europako Txapelketetan dominak irabazi dituzten kirolariei.

Kirolaren Astea egin zen, Unibertsitatean arlo horretan garatzen den jarduera ikusarazteko, eta erabiltzaileak jardueretara erakartzeko ekintzak egin ziren. Gainera, 2021-2022 ikasturteko Espainiako eta Europako Txapelketetan dominak irabazi zituzten kirolariei aitortza ekitaldia egin zitzaion.

- **Komunikazioa.** Kirolaren presentzia areagotzea unibertsitatearen sare sozialetan eta barne hedabideetan.

Kirol Zerbitzuak sare sozialetan duen presentzia areagotu egin da, bereziki Instagram sare sozialean.

- **Kredituak aitortzea kirol jarduerengatik.**

Kirol jarduerengatik kredituak aitortzen jarraitu da.

- **Goi mailako kirolarientzako tutoretza plana. Eguneratzea eta segimendua.**

Goi mailako kirolarientzako tutoretza plana hobetzeko lan egin da: planaren segimendua egin da eta bilerak egin dira programa horretan parte hartzen duten erakundeekin, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

- **Estatuan edo nazioartean (Espainiako Unibertsitate Kirolaren Batzordea, Kirolaren Euskal Batzordea...) eginiko koordinazio bileretan parte hartzea, eta harremanetan jartzea beste unibertsitate batzuekin.**

Estatuan edo nazioartean (Espainiako Unibertsitate Kirolaren Batzordea, Kirolaren Euskal Batzordea...) eginiko koordinazio bileretan parte hartu da, eta bilera informalak egin dira beste unibertsitate batzuekin.

- **Beste erakunde batzuek antolatutako lan mahaietan parte hartzea, elkarlanean aritzeko jardura fisikoaren eta kirolaren arloko arauen, dekretuen eta legeen diseinuan (Kirolaren Euskal Legea, EAEn kirol lanbideetara sartzeko eta horietan aritzeko Legea...).**

Beste erakunde batzuek sustatutako lan mahaietan parte hartu da, jardura fisikoaren eta kirolaren esparruko araudiak, dekretuak eta legeak diseinatzen laguntzeko.

- **Eusko Jaurlaritzarekiko hartu-emana indartzea eta unibertsitateko kideak aktibatzeke programa espezifikoak egiteko aukera aztertzea.**

Zenbait bilera egin dira Eusko Jaurlaritzarekin, unibertsitateko kideak aktibatzeke programa espezifikoaren finantzaketari eta ezarpenari buruzko alderdiak aztertzeko.

Ikasturte honetarako jardura planean aipatu gabeko jardura berri gisa, kirol-eskola berri bat garatu da: Atletismo Eskola (running).

Halaber, Santurtziko Udalarekin, Bilboko Athletic Clubekin eta beste erakunde batzuekin bilerak egin dira, kirol arloan bi aldeei mesede egingo dieten akordioak lortzeko.

Azkenik, Tourra hasi aurreko Science and Cycling Kongresua antolatzen lagundu da, zeinetan txirrindularitzarekin zerikusia duten munduko adituak biltzen diren.

3. helburua

Bi norabideko komunikazio enpatiko bat sustatzea unibertsitateko kargudunen eta unibertsitateko kideen artean.

Ekintzak

- 3.1. Errektore taldeko pertsonak bilerak egitea bestelako gobernu organo eta/edo kolektiboetako ordezkariekin (ikastegiak, sailak, katedrak, ikerketa institutuak, ikasleen kontseilua...), arazoak hautemateko eta horiek konpontzeko edo arintzeko neurriak aurreikusteko. Bilera horiek egingo dira; batez ere, azken urteotan berrantolatu diren organoekin.
- 3.2. Intranet korporatibo bat garatzeko plan bat egitea. Intranet horrek beharrezkoak diren kanalak eta tresnak izango ditu, irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen, ikasleen eta unibertsitateko beste kolektibo batzuen arteko lankidetzak eta barne komunikazio bertikala eta horizontala sustatzeko.
- 3.3. Aurkakotasunik gabeko gatazka konpontzeko metodoetan sakontzea, aldezlearen lankidetzaz, unibertsitate bizikidetzako Legearen irizpideei jarraituz.
- 3.4. UPV/EHUren kode etikoa egitea eta onartzea.

Ikasturtean zehar, jarraituko dugu bilerak egiten ikastegietako dekanoeekin eta zuzendariekin, baita dekanok edo zuzendaritza taldeekin ere.

Ikasturtean zehar, gutxienez bilera bat egin da Bizkaiko 9 ikastegietako dekanok eta zuzendaritza talde bakoitzarekin, eta 2 bilera Bizkaiko ikastegietako dekanok eta zuzendariekin.

Jarraipena emango zaie ohiko 3 Campuseko Batzarrei: ikasturterako eginkizunen plana aurkeztea, *numerus clausus*-a onartzea eta ikasturte amaierako memoria aurkeztea.

2022-2023 ikasturtean zehar, Campuseko ohiko hiru batzar egin dira Bizkaiko ikastetxeen *numerus clausus*a, urteko memoria eta Campuseko urteko txostena onartzeko eta aurkezteko, besteak beste. Gainera, ezohiko bi batzar egin dira, ohiko batzarretan izapidetu arte itxaron ezin zuten gaiak onartzeko.

4. helburua

Oreka bat sortzea prozesuen gardentasunaren eta haien burokraziaren artean, eta baliabideen eta informazio kudeaketaren eraginkortasuna hobetzea, eraldaketa digitalak ematen dituen aukerak aprobetxatuta.

5. helburua

Gizarte erronkei eta GJHei erantzungo dieten proiektuak aurkeztea, Next Generation (NGEU) Funtsen deialdia erabilita, besteak beste.

6. helburua

Proiektu estrategikoak oztopatu ditzaketen hesi normatiboak eta karga administratiboak ezabatzea, interes publiko baten edo unibertsitatearen ikuspegitik beharrezkoak ez badira, eraginpeko edo inplikaturako organo, zerbitzu eta agenteen partaidetzarekin.

7. helburua

Finantzaketa publikoa eta pribatua hobetzea, gure unibertsitatearen zerbitzu publikoaren helburua aintzat hartuta.

Ekintzak

- 7.1. Eusko Jaurlaritzarekin partekatutako estrategia bat lantzea, unibertsitate publikoaren eginkizunarekin koherentea izango den unibertsitate plan berri bat garatzeko.
- 7.2. Erabaki estrategikoak hartzen lagunduko duen kontabilitate analitikoa ezartzea.
- 7.3. Unibertsitatearen barne eta kanpo emaitzen eta inpaktu ekonomiko eta sozialaren ikusgarritasuna hobetzea, kanpoko finantzaketa areagotzeko, beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin egindako hitzarmen edo kontratuen bidez.
- 7.4. Mezenasgo programa bat egitea.
- 7.5. Aldizkako komunikazio bat ezartzea instituzio eta ekonomia eta gizarte erakundeekin.

(7.5 ekintza) Bilera formalak eta informalak egingo dira erakundeekin eta ekonomia nahiz gizarte agenteekin, bereziki Bizkaiko Foru Aldundiarekin, udalerrri handienekin eta UPV/EHUren ikastegi bat dutenekin (Bilbo, Leioa, Erandio, Portugalete). Era berean, bilerak

egingo dira aldian behin CEBEK patronalarekin, sinatutako hitzarmena garatzeko eta beste alor batzuetan elkarlanean aritzeko aukera aztertzeko: ekintzailtza, prestakuntza duala, etab.

Aldian behin bilerak egin dira Bizkaiko Foru Aldundiko eta lurraldeko udal nagusietako arloekin, proiektu bateratuak koordinatzeko eta proiektu berria sortzeko aukera balioesteko. Ildo horretan, azpimarratzekoa da Bilbo Unibertsitate Hiria proiektuaren barruan Bilboko Udalarekiko lankidetzatza.

8. helburua

Genero berdintasuna indartzea unibertsitate lidergoan.